

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Osasunbideko larrialdi-zerbitzuek 212 kasu artatu dituzte Sanferminak hasi zirenetik

*Gehienak traumatismoak dira (156); horien atzetik intoxicazioak (36) izan dira ohikoenak*

Jueves, 10 de julio de 2014

Osasunbideko arreta espezializatuaren sareko larrialdi-zerbitzuek, Doctor San Martín zentroan eta Nafarroako Ospitaleguneko ospitaleetan (lehenago Nafarroako Ospitalea eta Virgen del Camino Ospitalea) jarri direnek hain zuzen, Sanferminetako jaietako istripuekin lotutako 212 kasutan eskaini dute arreta medikoa uztailearen 6tik, igandea, uztailearen 9ko (asteazkena) azken ordura arte.

Ez dira zenbaketa horretan sartzen entzierroetako istripuengatik ospitaleko larrialdi-zerbitzuek artatutako traumatismoengatik 16 kasu.

Kasu guztietatik, 99 San Martín anbulatorioan, 85 lehenago Virgen del Camino ospitalean eta 28 lehenago Nafarroako Ospitalean artatu dira.

Patologietan sailkatuta, ohikoenak traumatismoak eta zauriak izan dira (112), ondoren erasoak (13) eta intoxicazio etilikoak (7). "Bestelako artatze batzuk" kapituluan 6 kasu jaso dira.

Egunei erreparatuta, kasu gehien artatu ziren eguna uztailearen 6a izan zen, 54 pertsona artatu ziren, eta uztailearen 8an gutxien (36).

Osasuneko garraio-zerbitzuek 244 lekualdaketa egin dituzte guztira. Lekualdatze gehien egin ziren eguna igandea, uztaileak 6, izan zen, eta 80 aldiz lekualdatu ziren; horren atzetik, gehien astelehenean, uztaileak 7, egin ziren lekualdatze gehien, 60. Asteartean, uztaileak 8, 54 aldiz lekualdatu ziren eta, azkenik, 9an, asteazkenean, 50 aldiz.